

**LURRALDEAREN ANTOLAKETA (2.zatia)**

Bete hurrengo hutsuneak eta erantzun galderak:

Estatuak irizpide ugariaren arabera sailkatu daitezke: nola baliatzen duten boterea, nolakoa den estatuko buruzagitza, nola antolatzen den lurraldea edo nolako harremana duen erlijioarekin.

1.- Estatuak, boterea baliatzeko moduaren arabera:

(1)..... honako ezaugarri hauek dituen sistema politikoa da:

- Herritarrek aukeratzen dituzte beren (2)..... . Herritarrek hauteskundeetan hautatzen dituzte beren ordezkariak.
- Botere betearazlearen, (3)..... eta judizialaren bereizketa.
- Legeek Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako , (4)..... eta askatasunak betetzen direla bermatzen dute, hala nola herritar guztiak legearen aurrean berdinak izatea. (5)..... batean jasotzen dira.

(6)..... deritzon sistema politikoan, berriz, estatuaren botere guztiak pertsona baten esku daude. Honako ezaugarri hauek ditu:

- Alderdi politikoak (7)..... daude edo gobernuaren aldekoak diren alderdiak bakarrik dira legezkoak.
- Legeek ez dituzte giza eskubideak (8)..... .
- Gobernuak (9)..... darabil oposizio politikoa galarazteko.
- Ez dago (10)..... librerik eta gobernuak ez dute herritarrek aukeratzen.

2.- Estatuak, estatuko buruzagitzaren arabera:

Estatuburua erregea bada, estatu mota hori (11)..... estatu forma bat da.

Monarkia (12)..... daude, Espainiakoa kasurako, eta monarkia

(13)....., Saudi Arabiakoa esate baterako.

Estatuburua (14)....., bada, berriz, errepublika esaten zaio estatu mota horri.

3.- Estatuak, lurralde-antolaketaren arabera:

Estatu (15)..... dira administrazio zentralak gobernatzen duenean lurralde osoa, eta legeak estatuko lurralde guztietan aplikatzen direnean. Erakunde zentralak estatu osoan autoritatea dutenean, baina eskualdeek beren erakunde propioak dituzte eta organo horiek ez daude estatuko erakundeen mende estatu (16)..... dira. Estatu deszentralizatuak bi motatakoak izan daitezke: federalak edo (17).....

4.- Estatuak, erlijioarekin duten harremanaren arabera:

- Estatu (18).....: erlijio baten printzipio eta doktrinak legetzat hartzen dira, eta erlijio horretako hierarkek kontrolatzen dituzte estatuaren hiru botereak.
- Estatu (19).....: estatuaren eta erlijioen artean banaketa dago; Erlijio guztiak onartzen dira.
- Estatu (20).....: erlijio ofizial bat dago, baina beste batzuen kultua onartzen da.